

Etxeko Botika-Kutxa

Etxeko istripu edo ondoez txikietarako botika eta material batzuk gordetzeko erabiltzen den altzari edo kutxa bat da. Familia bakoitzak botika eta material desberdinak behar ditu. Esate baterako, ume txikiak dituzten familien botika-kutxetan haien beharretarako medikamentuak gorde behar dira (dosi txikiagoak, jarabe formatuak, segurtasunezko itxigailua...).

Ez da erabiltzen eguneroko medikamentuak gordetzeko (hala nola tentsioa, kolesterola etab. zaintzeko tratamenduak), horiek etxeko beste leku batean gorde behar dira.

Ez da farmazia bat, ezta medikamentu biltegi bat ere.

2 Zauriak sendatzeko materiala



SERUM FISIOLOGIKOA

zauriak garbitzeko nahiz sudur-eta begi-garbitzeko egiteko.
 *Soberakoa bota egin behar da erabiltzen den bakoitzean.

TIRITAK



ANTISEPTIKOAK

adibidez, klorhexidina urtsua edo povidona iododuna, zauriak infektatzea ekiditeko. Zauriak uraz eta xaboiak garbitu ondoren aplikatu.

GAZA ESTERILAK



BENDAK



ESPARATRAPUA



ERABILI ETA BOTATZEKO XIRINGAK



zauriak garbitzeko eta sudur-garbitzeko egiteko, baita haurren dosiak kalkulatzeko ere.

GORPUTZ ARROTZAK ATERATZEKO MATXARDAK*



PUNTA BIRIBILDUN ARTAZIAK*



*Erabiltzen diren bakoitzean, uraz, xaboiak eta klorhexidinaz garbitu behar dira.

1 Termometroa

behar bezada funtzionatu behar du

7 Larruazaleko narritaduretarako ukendua edo hesia.

Oso erabilgarria da pixoihalen dermatitis kasurako.



3 HOTZ EDO/ETA BERO LEHORRA APLIKATZEKO POLTSA



4 AHOTIKO ERREHIDRATAZIORAKO GATZAK

Beharkoa edo gorakak izanez gero dira erabilgarriak, bereziki umeen eta adinekoen kasuan. Farmazietan saltzen dituzte.



6 Eguzki-erreduretarako krema eta azaleko erreduretarako ukendua



5 Sukarrerako eta minerako botika batzuk...



- Botika guztiak gorde behar dira beti beren jatorrizko ontzian prospektuarekin batera, edozein unetan argitu ahal izateko edozein zantza.
- Garrantzitsua da aldiro-aldiro begiratzea ongi dauden eta noiz iraungitzen diren.
- Ez da gorde behar lehenagoko tratamenduen soberakinik, bereziki antibiotikoak, besteak beste medikuak aginduta bakarrik erabili behar direlako.
- Argibide gehiago nahi izanez gero:



iBotika web orriaren esteka Medikamentuei buruzko informazio-fitxak

ANALGESIKOAK ETA ANTITERMIKOAK ADIBIDEZ PARACETAMOLA

EGOKIAK DIRA: sukarra edo min txikia/ertaina izanez gero

COMENDATUTAKO DOSIA:

34kg baino gehiago helduen kasuan 500 mg 6 orduz behin

umeen kasuan pisuaren arabera kalkulatzen da

100 mg/dl paracetamol jaraberako (merkatuko ohikoena)

Pisua	Paracetamol (6 orduan behin)	Pisua	Paracetamol (6 orduan behin)	Pisua	Paracetamol (6 orduan behin)
4 kg	0,6 ml	14 kg	2,1 ml	24 kg	3,6 ml
5 kg	0,8 ml	15 kg	2,3 ml	25 kg	3,8 ml
6 kg	0,9 ml	16 kg	2,4 ml	26 kg	3,9 ml
7 kg	1,1 ml	17 kg	2,6 ml	27 kg	4,1 ml
8 kg	1,2 ml	18 kg	2,7 ml	28 kg	4,2 ml
9 kg	1,4 ml	19 kg	2,9 ml	29 kg	4,4 ml
10 kg	1,5 ml	20 kg	3,0 ml	30 kg	4,5 ml
11 kg	1,7 ml	21 kg	3,2 ml	31 kg	4,7 ml
12 kg	1,8 ml	22 kg	3,3 ml	32 kg	4,8 ml
13 kg	2,0 ml	23 kg	3,5 ml	33 kg	5,0 ml

KASU HAUETAN ERABILTZEN DA

Ultzera gastrikoa edo asma izanez gero, ahotiko antikoagulazioa hartuz gero, bihotz- edo giltzurrun-gutxiegitasuna izanez gero, antiinflamatorioei (ibuprofenoa, naproxena, dexketoprofenoa...) alergia izanez gero.

ANTIINFLAMATORIOAK ADIBIDEZ IBUPROFENOA

EGOKIAK DIRA:

inflamazio baten ondoriozko mina arintzeko edo/eta min txikia edo ertaina arintzeko (hilerokoagatik mina, buruko mina, etab.)

COMENDATUTAKO DOSIA:

helduen kasuan 400mg 8 orduz behin

umeen kasuan ibuprofenoazko jarabeak daude

Kontzentrazioa ez da beti berdina (**% 2tik %4ra bitartean**)

horregatik, umeari eman baino lehen, zer kontzentrazio duen ikusi behar da. Taula honetan duzu pisuaren arabera gomendatutako dosia.

Pisua	%2ko Ibuprofenoa (8 orduan behin)	Pisua	%4ko Ibuprofenoa (8 orduan behin)
7 kg	2,4 ml	30 kg	5,0 ml
8 kg	2,7 ml	31 kg	5,2 ml
9 kg	3,0 ml	32 kg	5,3 ml
10 kg	3,3 ml	33 kg	5,5 ml
11 kg	3,7 ml	34 kg	5,7 ml
12 kg	4,0 ml	35 kg	5,8 ml
13 kg	4,3 ml	36 kg	6,0 ml
14 kg	4,7 ml	37 kg	6,2 ml
15 kg	5,0 ml	38 kg	6,3 ml
16 kg	5,3 ml	39 kg	6,5 ml
17 kg	5,7 ml	40 kg	6,7 ml
18 kg	6,0 ml	41 kg	6,8 ml
19 kg	6,3 ml	42 kg	7,0 ml
20 kg	6,7 ml	43 kg	7,2 ml
21 kg	7,0 ml	44 kg	7,3 ml
22 kg	7,3 ml	45 kg	7,5 ml
23 kg	7,7 ml	46 kg	7,7 ml
24 kg	8,0 ml	47 kg	7,8 ml
25 kg	8,3 ml	48 kg	8,0 ml
26 kg	8,7 ml	49 kg	8,2 ml
27 kg	9,0 ml	50 kg	8,3 ml
28 kg	9,3 ml		
29 kg	9,7 ml		
30 kg	10,0 ml		

AHOTIKO ERREHIDRATAZIO-GATZAK

EGOKIAK DIRA beherakoa edo gorakoak izanez gero deshidratatzea ekiditeko, bereziki umeen eta adinekoen kasuan.

farmazietan erosten dira, uretan disolbatzeko zorrotxotan edo kontsumitzeko prest dagoen likido gisa

DOSIA PISUAREN ARABERA KALKULATZEN DA

Garrantzitsua da prospektuko jarraibideak betetzea.